



HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA TXOSTENA

Donamartiriko Herriko Kontseilua 2019ko abenduaren 13an bildu zen, 18:00etan, Antton LARRABURU jaun auzapeza mahaiburu.

Hor zirenak: LARRABURU Antton, ARMENDARIZ Alain, APHECETCHE Alain, BORDARRAMPE Xalbat, CHABAGNO Inès, MIRANDE Mathias, POCHELU Bernadette, POCHELU Didier, HARISMENDY Emmanuelle, LADEUIX Jean-Pierre.

Ezin etorria jakinarazi zuena: MINONDO Mirentxu

Bilkurako idazkaria: POCHELU Bernadette

Bilkuraren hastapena: 18:00etan

1/ 2019KO AZAROAREN 25EKO KARGU ESKUALDATUEN LEKUKO EBALUAZIO BATZORDEAREN (KELEB) TXOSTENAREN ONARTZEA

Lurralde Elkargoen Kode Orokorraren arabera;

Zergen Kode Orokorraren, eta bereziki 1609 nonies C artikulua arabera;

Kargu Eskualdatuen Lekuko Ebaluzio Batzordearen (KELEB) sortzeari buruzko 2017ko otsailaren 4ko Elkargoko Kontseiluaren arabera;

KELEBeko kideak eguneratzen dituen Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariaren 2019ko martxoaren 15eko erabakiaren arabera;

2019ko azaroaren 25eko KELEBek finkatu txostenaren arabera (Elkargoko araudiaren ordainsariak finkatzen dituen kargu eskualdatuen ebaluazoei buruz);

Herriko Kontseiluari galdegin zaio bere iritzia ematea KELEBeko txostengilearen aurkezpena entzun ondoan, eta horra deliberatu duena:

ONARTU du 2019ko azaroaren 25eko KELEBen txostena (ikus eranskinak);

BAIMENDU du jaun auzapeza beharrezko urraspideen egitera deliberamendu honen aplikatzeko, baita ere afera horri doakion dokumentu oro izenpetzera.

2/ Gaia: Toponimia: Bideen izendatzea

Jaun auzapezak biltzarkideei esplikatu die Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluak eta Euskal Hirigune Elkargoak abiatu Biziki Banda Zabaleko sarearen garatzearen kariatara helbideratzea beharrezkoa dela zuntz optikoaren merkaturatzeko, lurraldeko etxe eta enpresek identifikatuak behar baitute.

Etxeak eta enpresak kokatuz segurtasuna ere hobetuko da (suhiltzaileak eta sokorriak) eta zerbitzuak ere (gutunak, sare hornitzaileak, banatzea, etxerako laguntza, etab.).

Bideen izenak artoski hautatu dira, lekuko toponimia eta etxeen izenak atxikiz.


Egin diren ikerketa luzeen ondotik, jaun auzapezak proposatu du izen hauen onartzea, euskara hutsean:

Bidearen izena
Otsozelhaiko bidea
Eltzurruneko bidea
Agorretako bidea
Xixale
Behasiko Bidea
Laparre
Aindeko bidea
Donapaleuko errepidea
Abarrote
Kurutxetako bidea
Elizako karrika
Eltzarruzeko bidea


Poxuluko bidea
Gazteluberriko bidea
Haizkiriko bidea
Oragarreko bidea
Uhaldezelhai
Belhoitzeko bidea
Ithurbideko bidea
Lakuarako bidea
Mehaineko Bidea
Amorotzeko bidea
Jeloseko bidea

Izturitzeko errepidea	<p>Bestalde jaun auzapezak zehaztu du Euskal Hirigune Elkargoak dirulaguntza bat ematen diela helbideratzea plantan ezartzen duten herriei laguntza funts baten bidez.</p> <p>Oroitarazi du 4 000 €-ko prezio finkoa dela, 1 000 €-z emendatua euskara erabiltzeko eta 1 000 € gehiagoz emendatua 50 bide baino gehiago dituzten herrien laguntzeko.</p> <p>Karia horretara jaun auzapezak proposatu du Euskal Hirigune Elkargoari dirulaguntza horren galdegitea Donamartirirendako, hots, 5 000 €.</p> <p>Luzaz eztabaidatu ondoan Herriko Kontseiluak aho batez:</p> <p>ONARTU ditu herriko bideen izenak, gainean diren bezala, euskara hutsean.</p> <p>EMAN dio - jaun auzapezari beharrezko urraspide ororen egiteko ardura herriko helbideratzea plantan ezartzeko.</p> <p>-Euskal Hirigune Elkargoari helbideratzea plantan ezartzeko laguntza funtsaren dirulaguntza galdegiteko ardura.</p>
Jauregigaineko bidea	
Mugako bidea	
Ibarretako bidea	
Landagaraiko bidea	
Iribarneko bidea	
Bazterretxeko bidea	
Errekaldeko bidea	
Oilatagerreko bidea	
Hazarolako bidea	
Oihanarteko bidea	
Junta leku	
Arbildura	

3/ Gainerako gaiak

 **8. lur zatia:** bikote bat interesatua da 8. lur zatia ukaiteko eta eraikitzaile bati planoak eginarazi dizkio. Honek planoak egin ditu maila Erdiko etxearen eraikitzeko, araudiak eskatzen duelarik bi mailako etxea behar zela. Ez zaio araudiari jarraiki, ez da eraikitzeko baimenik aurkeztu.

8. lur zatiaz oraino interesatua den bikoteak obralari bati dei egin dio plano berrien egiteko. 8. lur zatiaren araudiak zehazten du 8. lur zatian elkarri datxizkion bi etxe egiten ahalko direla eraikin bakarrean. Baina ez da hala egiteko betebeharririk.

 **Eskolako komunitateko soailuan ura sartu da:** gertatu kalteak asurantzak hartzen ditu osoki beregain, frankiziarik gabe. Igeltsu, tindu eta elektrika obrak dira egin behar direnak. Obrak otsaileko bakantzetan egingen dira. Aldaketak egin dira ez dadin berriz horrelako kalterik gerta. Azken aldiako euriek ez dute kalte gehiagorik eragin.

Bilkuraren bururatzera: 19h30ean

2019/12/17an afixatzeko ikusia, Lurralde Elkargoaren Kode Nagusiko L.2121-25. artikulua aginduen arabera

Auzapeza,
2019/12/17an